

OIARTZUN / Juan Mari Lekuona zenaren liburutegia, udal jabetzakoa

Juan Mari Lekuona zenaren liburutegia Udal jabetzakoa bihurtu da, Udalak, Kultura sailaren bidez Lekuonaren sendiarekin egin duen hitzarmenari esker. Maiatzaren 6an sinatu zuten Aitor Etxeberria alkateak eta Oihana Lekuonak (Juan Mari izendatu zuen ordezkariak) bere liburutegi pertsonalaren dohaintza-agiria.

Hil aurretik, idatzita utzi zituen Lekuonak bere azken borondateak. Horien artean zegoen Primi arrebaren etxean gordeta zuen liburutegi pertsonala Manuel Lekuona bibliotekari ematea. Zeregin hori aurrera eramateko, Oihana iloba izendatu zuen ordezkari.

500 liburu

Manuel Lekuona bibliotekari egindako dohaintza ia 500 liburuko bilduma da, gehientsuenak euskal gaiei buruzkoak.

Udalaren asmoa, aurretik bere osaba On Manuel Lekuonaren liburuarekin egin bezala, liburu horiek guztiak katalogatu ondoren, Manuel Lekuona bibliotekako fondoa aberasteaz gain, liburutegi hau oiartzuar eta euskaltzale guztiek kontsultatzeko eskura jartzea da.

Lekuonaren biografia

Juan Mari Lekuona Berasategi Oiartzunen jaio zen 1927ko azaroaren 11n eta Donostian hil zen 2005eko abenduaren 5ean. Idazle bikaina, euskaltzaina, irakaslea eta apaiza izan zen. Teologia ikasketak egin zituen eta ondoren, apaiztu egin zen.

Idazten, poesiaren munduan nabarmendu zen batez ere, baina bestelako lanak ere egin zituen (itzulpenak, saiakera liburuak, biografiak edota antologiak). 1987. urtean, euskaltzain oso izendatu zuten. Familia euskaltzale eta euskal-ikertzaile bateko kide zenez, nabarmena zen ume-umetatik euskaraz izan zuen prestaketa.

On Manuel osaba zuenaren eragina oso argia zen Juan Mari ilobarengan, batik bat ahozko euskal literaturaren arloan egindako ikerketetan.